

"Aranaren biblioteka" katalogoa aurkeztu du Euskaltzaindiak

'Aranak eta euskal gizarteak merezi zuten honelako liburu bat', Andres Urrutia, euskaltzain buruaren hitzetan. Atzo goizean, Euskaltzaindiak Bilbon duen egoi-tza nagusian, aurkeztu zuten Jose Antonio Aranaren Biblioteka katalogoa. 'Interneten dagoen katalogoa baino pixka bat laburragoa da, baina txukunagoa ere', Pruden Gartzia, Azkue Fundazioaren zuzendariaren esanetan.

Azkue Bibliotekako burua eta euskaltzain emeritu den Jose Antonio Arana Martijak, duela hiru urte, 2007ko irailaren 28an, bere liburutegi pertsonalaren dohain- tza egin zion Euskaltzaindiari. Liburutegi horretan urte askotan zehar bere lanak egiteko erabili dituen liburuak eta argitalpenak daude. Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekaren zerbitzuek katalogazio lanak egin dituzte eta ondare guztia irakurle eta ikertzaileen eskura jarri. Katalogo hori da atzo aurkeztu zuten liburua. Akademiak Katalogoak sailean publikatutako hirugarren alea da hau. Guztira 5.657 erreferentzia ditu, eta gaiei dagokienez, Humanitateen esparrukoak dira nagusi: historia, kultura, musika, erlijioa, zuzenbidea, literatura edota artea. Gehienetan Euskal Herriarekin, eta bereziki Gernikarekin, harremanetan daudenak. Jose Antonio Aranaren egiletza edo lankidetzaren dutenak 256 dira; orobat, antzinakoak (1820. urtea baino lehenagokoak), 65 ; euskaraz daudenak 2.183 dira, hots, heren bat baino apur bat gehiago. Katalogatzeko nazioarteko arauak erabili dira, baina euskarara moldatuak.

Esker oneko oparia 'Azkue bibliotekaren arima eta hauspoa da Jose Antonio Arana. Hau da berari eskertzeko egin ahal dugun apurra. Opari eta trukaketa bezala eskainia, berak euskaltzaindiari eskainitakoaren ordainketa txikia'. Horrela ofrendatu zion argitalpena Urrutiak aurkezpeneko protagonistari. Izatez, Aranak, Katalogoak sailaren aurreko bi aleetan lan egin zuen eta, hirugarrena, berak eskainitakoari dedikatua izatea ez da gehiegikeria.

Gaixorik egon zen Arana orain urte batzuk eta, horren ondorioz bizilekuz aldatu behar izan zuen. Etxe berrian, zituen liburu guztiak kabitu ez eta Euskaltzaindiari eskaintzea deliberatu zuen. Horien guztien katalogoa da liburua.